

Leizaola 100 urte

Euskaldunon Egunkaria, 1996-09-22: 3.

Aurten ari gara ospatzen gure herriko hiru gizon handiren mendeurrena: Lizardi olerkaria, Aitzol euskaltzalea eta Leizaola lehendakariarena. Hirurak izan dira aipamen nagusi hauetaz gain kazetari, idazle eta abertzale sutsuak; lehen biak ezagunagoak ditugu kultur arlo orokorrean, eta hirugarrena murrizago exilioko politikan. Jesus Maria Leizaola Sanchez Donostian jaio zen 1896. urteko irailak 7 zituela. Zuzenbide ikasketak burutu eta Donostiako Diputazioan hasten da lanean idazkari gisa; 1922an Autonomia eta Unibertsitate eske Gernikan egindako manifestaldiaren ondoren guardia zibilek esosatuta eramaten dute oinez Zornotzaraino. ELAko partaide da hasieratik. Euskal kazetaritzan estreinatzen da *Argia* astekarian (1921) *Gudari* izenordearekin, eta orduko lan batek adierazten du gai hartako bere asmo nagusi bat: "Euskal egunerokoa egin diteke". Politikan, Errepublikarekin sartzen da 1931n, EAJren barruan Agirrereren lagun Eleizalde eta Eli Gallastegi goraiatuz; diputatu aukeratzen dute; Agirrereren Lehen Jaurlaritzako gizona da gero gerratean. II. Mundu Gerran (1939-45) eta jarraian Agirrereren ordekoa da; hau hiltzen denean (1960), egiten du Donibane-Lohizuneko hilerrian bere ordezkotzaren zina, eta irmoki eusten dio, Garaikoetxeari 1980an sua pasatzen dion arte.